

Herriminaren soinua

Egunkaria, 1992-01-05: 2.

IZ-ren diskagintza jarraitzen dut. Harrigarria da hor erleak bezala garatzen ari direnen euskal mundua. Oraingoan, Egan taldeko diska bikain batekin, "Ansorenatarren danbolina"! Zenbat oroitzapen eta bihozkada! Nire herriminaren soinua txistu ta danbolin izan da, eta Caracasen nengoela Hernaniko plazatik igande arratsalde batez harrika atera zutela jakin nuenean, gure herriaren azken arnasa joan zitzaigula uste izan nuen; Andoaingo Aizpuruatarrak eta Hernaniko Ansorenatarrak etorri zitzaizkidan burura harrikaldikaren azpian betiko akabatuta. Gogokoen nituenak. Andoaindarra naiz, ongi ezagutzen nituen herrikoak, eta nire amona Bixenta Lujanbio eta ama Anttoni Orradre "Naparranekoa" hernaniarrak zirenez, astero han ginen Udaletxearen bizkarrean orain hilabete gutxi arte zutik iraun duen hiru bizitzako "Santa Barbarania"n; han jaio ziran, sei anai-arrebak, han hil ziran aiton-amonak, eta goraxeago kanposantu aldera, zegoen Ansorenatarren etxea; eta orain Joxe Inaziok kontaktzen duen arte, Ansorenatarren soinua zela uste izan nuen beti Hernanin entzuten nituenak. Herriratuz gero, Joxe Inazio berari entzun diot maisuki, bibolina baino finago jotzen. Egia izango da, honek dion bezala, txistua goi mailako instrumento izatera helduko zela herriak beretzat bakarrik geloskeriaz gorde izan ez balu, baina ez zuen geure arimako toki ezkutu eta ez du honetan gaur oraindik jotzen duen soinu misteriotsu hau eragingo. Eta zer geratuko zen orduan geuk erbestean sentitzeko?